

Munduko Hizkuntzaren Ondarearen UNESCO Katedra UPV/EHU Munduko hizkuntza-leihoak

HIZKUNTZA: SWAHILIA


Swahili da izenik hedatuena, euskaraz *swahilia*. Erabilitako beste zenbait izen: kisuaheli, kiswahili (Lewis, 2009).

Swahili izenak jatorri arabiarra du, *sahel* (itsasbazter, kostalde) izenaren pluraletik ei dator eta. Ofiziala da Kenyan, Tanzanian eta Ugandan.

LURRALDEA ETA HIZTUNAK

Swahilia Tanzanian eta Kenyan hitz egiten da bereziki, baina hedatuta dago Somalian, Ugandan, Mozambiken, Kongoko Errepublikan Demokratikoan, Ruandan eta Burundin (ikusi beheko mapan horiz jarritako eskualdea).

Kontuan izan behar da, jatorriz edo lehen hizkuntza modura bi milioi lagun inguruk hitz egiten dutela *swahiliz*, baina etnien arteko komunikazio hizkuntza modura, komertzio hizkuntza edo herrialde batzuetan hizkuntza nazional modura 40 milioitik gora hiztunek erabiltzen dutela *lingua franka* modura, bere aldaera guztiak kontuan hartuta. Beraz, esan daiteke *swahiliaren* hiztun gehienek beste hizkuntza afrikar bat dutela lehen hizkuntza modura.



Maparen iturria: Uranga *et al.*, 2008.

HIZKUNTZAREN EGOERA

Kenya eta Tanzaniako gobernuek Afrikako hizkuntzetako bat indartu nahi izan dute eremu ofizialean ingelesarekin batera, *swahilia*. Ondorioz, herrialde horietan asko hedatu den hizkuntza afrikarra da. Eta zenbaiten iritziz, gainerako hizkuntza afrikar askotako hiztunak euren hizkuntzak uzten ari dira *swahiliaren* mesedetan eta berau bihurtzen ari da hizkuntza askoren mehatxu iturri. Nolanahi ere, badirudi, gaur egun

egoera honen aurrean erantzun bat gertatzen ari dela Kenyan, eta bertako gainerako hizkuntzak aintzat hartzeko joera garrantzizko bat zabaltzen ari dela.

Swahiliaren jatorriaren inguruan badirudi Somalia hegoaldeetik hasi eta Mozambikera heltzen den kostaldeko lurraldeetik abiatuta, XIX. mendeko esklabutzaren komertzioarekin batera, Tanzania eta Kenyako lurraldeen barnean hedatzen joan zela. Izan ere, europar kolonizazioak indartu egin zuen hedatze hori. Gaur egun, Afrikako hizkuntzetatik gehien hedatuta dagoen hizkuntza da.

Bestalde, *swahiliaren* estandarizazioa 1930. urtean jarri zen abian, Julius Kambarage Nyerere, Tanzaniako Presidenteak nazioa batzeko ahaleginetan hizkuntza afrikar hori hautatzearen ondorioz. Eta hortik aurrera hitz egiten da hizkuntzaren estandarizazioa abian jarri zela. Horretarako, alfabeto latindarra erabiltzen da, baina belaunaldi zaharrek XIX. mendean erabiltzen zen grafia arabiarrean idazten dute oraindik.

HIZKUNTZAREN SAILKAPENA

Swahilia bantu familiako hizkuntza da, niger-kongoar taldekoa. Baina arabiera eta persieraren eragina oso nabarmena du.

HIZKUNTZAREN EZAUGARRIAK

Swahilia hizkuntza aglutinatzailea eta flexiboa da beste hizkuntza bantu asko bezala. Ez dira generoak bereizten, eta izenak talde nominaletan biltzen dira: gizakiak, animaliak, landareak, gai abstraktuak, likidoak, eta abar. Talde horietako bakoitzak bi aurrizki ditu forma singularra eta plurala bereiziz, eta aurrizki horiek izenetan ez ezik adjektibo eta aditzetan ere agertzen dira.

kiti kile kikubwa kimevunjika / viti vile vikubwa vimevunjika

aulki handi hau apurtua izan da / aulki handi hauek apurtuak izan dira

ki-/vi talde bereko aurrizkiak, singularra / plurala

le = erakuslea

kubwa = handia

vunja = apurtu

ika = pasiba adierazteko atzizkia

Hiztegiari dagokionean, arabieraren eragina agerian geratzen da, esate baterako, zenbakien izenetan: *sita/sei*, *saba/zazpi*, *tisa/bederatzi* izenek jatorri arabiarra dute. Nolanahi ere, hizkuntzaren hedatze -prozesuan kontaktuan izan diren gainerako afrikar hizkuntzetako maileguak ere biltzen ditu *swahiliak*, eta horien artean, gailendu da azken mendean ingeles jatorrikoak, batez ere arlo tekniko eta formaletan. Horrez gain, aurki daitezke portugese-, hindi, aleman eta frantses jatorria duten hitzak. Hitz horiek, batez ere, komertzioan eta erlijioaren esparruan aurkitzen dira.

HIZTEGITXOA

sifuri, moja, mbili, tatu, nne, tano, sita, sabe, nane, tisa, kumi, kumi na moja, kumi na mbili, kumi na tatu, kumi na nne, kumi na tano, kumi na sita, kumi na sabe, kumi na nane, kumi na tisa, ishirini, ishirini na moja, ishirini na mbili, ..., thalathini, arubaini, hamsini, sitini, sabini, thamanini, tisini, mia, mia mbili, mia tatu

0, 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21, 22, ... 30, 40, 50, 60, 70, 80, 90, 100, 200, 300

ERAKUNDEAK ETA ESTEKAK

<http://www.ikuska.com/Africa/Lenguas/Kiswahili/index.htm>

<http://www.masteranylanguage.com/cgi/f/rView.pl?pc=MAISwahili&tc=Numbers&vm=fc&la=>

ERREFERENTZIAK

Leclerc, Jacques (2010) *L'aménagement linguistique et les langues dans le monde*. Université Laval. <http://www.tlfq.ulaval.ca/axl/index.html>

Lewis, M. Paul (arg.) (2009) *Ethnologue: Languages of the World*. Sixteenth edition. Dallas, Texas: SIL International.

Moreno Cabrera, Juan Carlos (2003) *El universo de las lenguas*. Castalia Editorial. Madrid.

Moseley, Christopher (2010) *Atlas de las Lenguas en Peligro en el Mundo*. Ediciones UNESCO. Paris.

Uranga, B., Aierdi, X., Idiazabal, I., Amorrortu, E., Barreña, A., Ortega, A. (2008) *Hizkuntzak eta inmigrazioa - Lenguas e inmigración*. Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedra. Bilbo: Ikuspegi – Unesco Etxea – Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedra.

LINGUAMON:

http://www10.gencat.net/pres_casa_llengues/AppJava/frontend/llengues_detall.jsp?id=105&idioma=6

<http://www.ethnologue.com/>